



ZRV

3244



H-17776/R-39317

ATV
21633

VERSO BERRIAC

Azquen Juicioaren

GAÑEAN.



VERGARAN:

J. Lopez-en moldizteguian.

1895 garren urtean.

1. Juicioco aitzen eguna
Nolacoa bear duan,
Esplicatzea deseaten det
Entenditzeco moduan;
Ceruco aita lagun zadazu
Publica dedin munduan,
Haren bildurrez combertituta
Consolatzeco orduan.

2. Juicioraco bildur aundia
Icaratuta daucanac,
Ay zucenago eguingo ditu
Bere animaco lanac.

3

Bar cacioric orduan eztu
Orain descuidatzen danac
Zorrotz eguingo du justicia
Guero Jesucristo Jaunac

3. Orain daucagu ill becin sarri
Juicioco particularra
Jaungoicoaren Tribunalera
Juzgatzera juan bearra
Obraen vistan emango zayo
Sentencia bat bacarra
Onarenzaco gustoa eta
Gaiztoentzaco negarra.

4 Mundu onetan bat iltzen bada
Jaungoicaren gracion,
Vitorioso irtena dago
Etsayaquico aucian;
Ceruetara destinatzen da
Juicioco sentencian,
Jauna alabatzen an egoteco

Eternidade gucian.

5. Iltzea bardin guedatzen bada
Bat pecatu mortalean,
Juicio artan condenatzen da
Jaunaren tribunalean:
Deabru gaiztoac an daramate
Bere dembora pasatutzera
Infernuaren mendean.

6. Sentenciatua egonagatic
Tribunal artan lenago,
Munducodespeiran bestejuiciobat
Gucionzaco badago;
Juez justuac gucion bistan
Aguertzea du nayago,
Alcarreintzaco aitzaquiaric
Izan ez dediñ gueyago

7 Bata ona ta bestea gaiztoa
Juzgatu arren munduan
Juicio artan aguertuco da

Nore cer obra eguin duan;
Galdu diranoc nor bere faltaz
Ezagutzeco moduan,
Juicioan sartuco gaitu
Jaunac gucioc orduan.

8 Bildurgarria izango degu
Azquen juicioa eguna,
Cergatican dan betico nora juan
Sentenciatu biaguna;
Eta coleran etorrico da
Suez Jesu-Cristo Jauna,
Zucen eguiten ezpadiogu
Orain aguintzen diguna.

9 Noiz izango dan egun triste au
Daquienic eztago,
Bacar bacarric Jaungoicoaren
Secretoan au dāgo;
Ta iñorc ecin juzga dezaque
Ez berandu ta ez goizago,

Au da nic esan dezaquedana
Guerogo ta alderago.

10. Orayetican datocenean
Euri jasa ta arriac,
Aurrez oidira aice nastuac
Ta laño beltzac jarriac,
Juicioac ala ecarrico ditu
Señale icaragarriac,
Auts biurtuco diraneraño
Ciudade ta erriac.

11. Azquen juicio alderatzeac
Aurrez decaizquien planac,
Alcarren contra asico dira
Munduco nacio danac;
Guerrate ta gosete asco
Faltaturican cer janac.
Miseri asco ecartzen dute
Enredoan dabilztanac.

12. Cerutic ere novedadeac

Aurretic dira asico,
Eguzqui ori illunduco du
Illarguia ezta icusico;
Ta izar asco erori edo
Dirade beera jechico,
Gauza guciac descalabroac
Dituzte eracutzico.

13. Pisti guciac jechico dira
Goseac gende artera,
Estira joango orain becela
Desierto apatera;
Obligatuco dirade alcar
Mendean dana jatera,
Cer istilluac izango diran
Ortic contuac atera.

14. Novedadeac izango ditu
Gogorrac eguraldiac,
Asico dira lur icara ta
Trastornacio aundiac;

Ta alcar juaz amaica berriz
Goitican bera mendiac,
Escapatutzen lanic asco
Ibillico du jendiac.

15. Lecu ascotan nai du jendiac
Orain jabe ta nagusi,
Eta orduan gauzac utzi ta
Asico dira igasi,
Alcarren contra danac deadarrez
Isambilla ta garrasi,
Bici danac an cer istilluac
Bearco dituan icusi.

16. Egonagatio[morallatuta
Gazteluquin jarriac,
Ambat ondatu eguingo dira
Ciudade ta erriac;
Garai artan bai estuasunac
Personarentzat larriac,
Consueloric eztu emango

Cillarrac eta urriac.

17. Juicioco señaie oyez
Jendea da arrituco,
Ezcutatzeco cucha billa
Dirade ibillituco;
Ay aleguiñac eguiñagatic
Batere ez serbituco,
Gordeta edo aztuta iñor
Ere ezta gueldituco.

18. Mendi guciac desmontaturic
Erriac estali edo ondatu,
Elemento ta tempestañeaz
Ibai guciac altatu;
Ta ichasoac gañez eguinda
Legor gucira saltatu,
Mundu triste au modu orretan
Bear du errematatu.

19. Elementoac uraren ayec
Aplacatzen diranean,

Su terrible bàt etorrico da
Guero gucien gañean;
Autsa besteric ezta egongo
Arc utzitzen dionean,
Orra munduco paraderoa
Nola degun aitzenean.

20 Ay bada numbait ondoichua
Gueyenac jayo guiñaden,
Eztaquit gure vanidadeac
Orain cegatic diraden;
Eztegu numbait ondo pensatzen
Cer fiñetaraeo gauden,
Ay bada orra cer estadutan
Ibilli bearrac gueraden.

21. Confianzaric ez albait artu
Munduco itsumenaquin,
Desordenaren sariac guero
Pagatzen dira penaquin,
Esamiñatu norc bere obrac

Maiz obligacioaquin,
Betico dicha alcanzatzeco
Lan onac eguiñarequin.

22 Laugauzajuangodiramunduti
Beti iraungo dutenac,
Bi oyec dira gorputz ta animac
Guerequin daduzcagunac;
Ta beste biyac oyequin eguiñac
Obra charrac eta onac,
Eternidadeco bici lecura
Guiatuco gaituztenac.

23. Erre eta auts biurturican
Jartzen danean mundoa,
Cumplitzen da obra char edo onac
Juzgatutze ordua;
Eguingo dute lecu batera
Danoc biltzeeo modua,
Publicoan an aguertuco da
Bacoitzaren estadua.

24. Ainguerucho bat etorrico da
Jendea prebenitzera,
Trompetarequin mundu gucian
Emango du aditzera;
Esango digu bici ta illac
Nator gucioi deitzera,
Josefetara atoste danoc
Juicioa celebratzera.

25. Juez Divinoac aguindu eta
Ainguerua citatzeco,
Esango digu gorputz ta anima
Illac resusitatzeco,
Betico sentencia artzera
Bereala juntatzeco,
Escusarican ezta egongo
Ordena ari faltatzeco.

26. Gorputz guciac jaiquico dir
Ill da lurrean daudenac,
Ichasoac ere emango ditu

13

Bere mendean dauzeanac.
Animac ere bilduco dira
Lenago emendic juanac,
Resusitatzeco alcarren billa
Asico dirade danac.

27. Infernutican datorren anima
Icusteco da chit beltza,
Comparatutzen dute arequin
Surtan egon dan icatza;
Itzusia ta ustela berriz
Arc izan zuan gorputza,
Alcarganatzeco izango due
Oyec bai alcarren antza.

28. Bere gorputzari esango dio
Anima condenatuac,
Ni galdu naute zure gusto ta
Griña madaricatuac;
Zuc eraguiñac izaten ciran
Beti nere pecatuac,

Argatic izango bearco degu
Orain asco penatuac.

29. Zorigaiztoco nere gorputza
Zugatic nago galdua,
Cere gustora pasatu naya
Cendualaco mundua;
Etzenduan nai eguin izandu
Iñorc ondo aguindua,
Oraiñ eguizu nere bistatic
Apartatzeco modua.

30. Gorputzac berriz esango dio
Bere anima galduari,
Entregatua izandu ciñan
Etsaya ta munduari;
Cerea asco ecic penac ematera
Orain bazatozquit neri,
Aparta zaitez beguietatic
¡Ay zorigaiztoco ori!

31. Aitzaqui asco gauzac gustora

15

Ateratzen ezpadira,
Azquen juicioz izango degu
Discordien despeira;
Juez justua juzgatzan eta
Beste guciac beguira,
Culpac norenac izandu ciran
Anche aguertu dira.

32. Ceruetara juan oi da
Anima gracion illa,
Etorrico da resucitatzeco
Bere gorputzaren billa;
Garbia eta zuri ederra
Eguzquia dirudilla,
Esango dio gorputz onari
Argana joan dedilla

33. Salutaturic esango dio
Atoz gorputza nigana,
Zu cera obra onac eguiten
Lagundutzen ciñidana;

16

Caridade ta penitencian
Beti ibiltzen ciñana,
Beragatican orain daucagu
Biontzaco zorina.

34. Gorputzac berriz esango dio
Atoz anima justua,
Zuc sugetatzen cenduan beti
Nere pasio gaiztoa;
Argati dago orain biontzat
Gloria eta gustoa,
Zugana nator unitutzer
Ez berriz iltzeeo piztua.

35. Gaiztoen gorputz eta animac
Ecin ichusiagoac,
Unituco dira nay ezta bear
alcarren enemigoac;
Justuenac berriz eguzquia baño
Zuri ta ederragoac,
Alcarrequin an batuco dira

Ecin adisquedeagoac.

36. Illac onela resucitatu
Ta jartzen diran garayen,
Jayo guciac bilduco guera
Josefetaco celayen;
Bildurrez asco juicio artan
Cer guerlatu bear zayen,
Len zabartu ta ecin danean
Erremediatu nayen.

37. Ay Josefetan asico dira
Escatzen barcacioac,
Aguertn bague estali naya
Maldade ta vicioac;
Lapurrac ere eguin nayeane
Beren restitucioac,
Bañan ez dio inore artuco
Ortan daude funcioac.

38 Eracutsia da gu nola bici
Cristo alzuan gucia,

Ta gurutzean gu salvatze
Utzi ere bai bicia;
Ofenditu duanac ezpadu eguiten
Munduan penitencia,
Arrazoy justuz eguingo digu
Guero berac justicia.

39. Pecaturican eguin badegu
Norc bere argaltasunez,
Barcacioa escatu arren
Biotzeco damutasunez;
Aprovechatu penitencia
Cristoc ipiñi cigunez,
Aren mancharic ezta aguertuco
Autore ascoc dionez.

40. Misericordiz allegatu zan
Cristo lengo etorreran,
Beste visita eguingo digu
Justicias ta coleran:
Cerren arc guri ondo eguin da

19

Gu gaizqui portatzen guëran
Aserratuco da gaiztoentzat
Munduaren acaberan.

41. Ay istilluac izango dira
Munduaren aitzenean,
Josefetara jende gucia
Juntatzen gueradenean;
Justuac ere bildurrez eta
Gaiztoac trance onean,
Ceñ sentencia enzun bear dan
Jueza datorrenean.

42. Estandarte bat aguertuco da
Bere gurutzearequin,
Cristoc mundua redimitu
Zuan señaleaquin;
Ta baliatu eztana arzaz
Egongo da penarequin,
Juez justua castigatzeco
Berriz arrazoyarequin.

43. Esan becela aurretie dala
Estandarte erreala,
Juez Divinoa Magestadeaz
Ondorendic bereala;
Bere compa i sagradu dana
Testigu orde duala,
Josefetaco celayan oyec
Sartuco dirade ala.

44. Jesu-Cristo Juez josefetara
Allegatutzen danean,
Aguertuco da glorificatua
Bere Jaincotasunean;
Santuac eta justu guciac
Berequin aldamenean,
Jende gucia arrituco da
Icusten diradenean.

45. Jaungoicoa ta bere leguea
Ucatzen dituzten ayec,
Izango dira aitortu eta

21

Jarrico diran garayec;
Emanagati orain garboa
Picardiraco etzayec,
Amaica bider provechu bague
Guero damutuco zayec.

46. Juez divinoa eserico da
Bere trono ederrean,
Josefetaco celai orretan
Jende gucien aurrean;
Justu guciac escubiti ta
Gaizto danac ezquerrean,
Juzgatu bague ezta utzico
Iñor ere bazterrean.

47 Juez jaquinsuac iduquico ditu
Gure pecatuac buruan,
Deabruac berriz asentatuac
Bere modu liburuan;
Gauza guciac aguertu bear
Guertatu diran moduan

Ocultatzeric ezta egongo
Daquienen inguruan.

48. Juicio artan celebratzeco
Aitzeneco audienciac,
Asico dira acusatutzen
Gaiztoen concienciac;
Berac aitortu eguin dituen
Gaiztaqueria guciac,
Erremeditu bague lenago
Baldin badauzca utziac.

49. Contuac estu artuco ditu
Cristo Juez Jaungoicoac,
Nun empleatu diran potenci
Anima ta gorputzecoac;
Eta gañera beste ondasun
Izan diran munducoac,
Danac ciraden bera serbitzeco
Arc berac emandacoac.

50. Eta gañera etsayen mendeti

23

Berac libratu guinducen,
Mundu galdua redimitu ta
Danoc jarritzeco zucen;
Aren gauzaquin baldin bagabiltz
Demonioa serbitzen,
Ya cer colera artuco duen
Esamiñatu gaitecen.

51. Pecatudunen contuac artzen
Jueza asten danean,
Testigu orde au egongo da
Deabrua aldamenean;
Esaten duala ni serbitu nan
Beti edo gueyenean,
Gaiztoa da ta orrec neretzat
Bearco du aizquenean.

52. Conciencia acusatutzen
Arico da alde batetic,
Pecatu danac aguertzen berriz
Deabru zarra bestetic;

Gucien berri daquien Jueza
Beguirra dala gañetic,
Guezurrarequiñ libratutzeric
Eztago ayen artetic.

53. Ay cristauari eguiten dizca
Deabruac cembait maleci,
Lendabicia aldan gucia
Pecatu eraguin aci;
Erremeditu eztedin guero
Engañioz galeraci,
Ta aitzenean danac aguertu
Orra chit galduta utzi.

54. Deabru gaiztoa ibiltzen zayo
Gaiztaquerian laguntzen,
Egui_n dituan guciac berriz
Juez onari aguertzen;
Esango dio etzituan zure
Mandamentuac gordetzen,
Beti ibilli da bere gusto ta

25

Demonioa serbitzen.

55. Pecatuaquin joaten baguera
Auto artara gaizqui gu,
Demonio ta concienciac
Acusatu zaizquigu;
Criatura danac izango dira
Salatzalle ta testigu,
Juezac publico contu guciac
Ala artuco dizquigu.

56. Demonioac esango dio
Juezari falso moduan,
Pecatari au zuc criatu ta
Erremeditu cenduan;
Ta zu ucatzen da ni amatzen
Or ibilli da munduan,
Orain juzgatu ezazu bada
Norenzaco bear duan.

57. Pecatudun au egongo da
Queja asco dituala,

Esango duana obra onac ere
Eguiñac badituala;
Aguertuco dizca bere Aingueru
Goardacoac bereala,
Esango zayo guchi ta gogo
Bague eguiñac dirala.

58. Lotsaturican au esango du
Aingueru Guardacoac
Nere aleguin guciac ciran
Betí alferricacoac:
Etzituen nai eguin izandu
Ondo aguindutacoac,
Declaracio guciac orra
Gaiztoenzat contracoac.

59. Juicio artan irtengo dira
Betico condenatuac,
Esquer gaiztoco hume falsoac
Cristo desamparatuac;
Modu onetan izango dira

27

Juezac sentenciatuac,
Zoazte Infernura Satanasequin
Gaizto madaricatuac.

60 Mandamentuac gorde ditzagun
Jaunac aguindutacoac,
Bestela eguin penitencia
Artan faltatutacoac;
Sentencia au emango digu
Cristo Juez Jaungoicoac,
Glorietara goacen betico
Justu zorionecoac.

61 Munduan zabaribiltzen danac
Dauzca an trance estuac,
Pesalumbreira biurtzen dira
Desordenaco gustoac;
Infernuraco apartatu ta
Jarrico dira gaiztoac,
Eta cerura bidean berriz
Juezarequin justuac.

62. Senarra batera joan liteque
Ta bestera emaztea,
Adisquide bat alde batera
Eta bestera bestea
Condenatuen paraderoa
Penazcoa ta tristea,
Salvatuena gloriosoa
Bicitza diferentea.

63. Condenatua an egongo da
Cerua galdua penaz,
Ta infernura an daramate
Negar eguingo du penaz;
Partiera triste miserablea
Agur betico esanaz.
Orra ba cer paraderoa
Munduan gaizto izanaz.

64. Misericordia esque asi ta
Alcanzatzan eztanean,
Jaungoicoaren contra birauca

Asico dira aitzenean
Ayec betico infernura ta
Justuac zorionean
Amorratu ta juramentuca
Au pensatzen dutenean.

65. Etorquizuna cer izango dan
An daudelaric beguira,
Azpico lurrac bi aldetara
Bertan partituco dira;
Condenatuac ondatutzeco
Infernuaren erdira
Au izango da Josefetaco
Gaizto gucien partida.

66. Justu guciac Juez Divinoac
Artuco ditu berequin,
Baita Cernura eramane
Nai izate utsarequin;
Betico glorira seguituco zayo
Consuelo onarequin,

Orra mundua acabatzen da
Oriece eguiñarequin.

67. Orra bada cer diferenciac
Bide batetic bestera,
Allegatuco guero gucioc
Lan orieci icustera;
Arrizco ori pasatu bague
Bat gueldituco ezguera,
Combertitu ta jarri gaitecen
Gaiztoac izan baguera.

68. Juicioco egun triste au
Maiz considera dezagun,
Zabartu bague norc bere lanac
Ondo prestatu ditzagun;
Esplicatu da contuan nola
An escatu zaizquigun,
Conciencia garbi ipiñi
Penaric ez datorquigun.

69. Faltaric bada orain biagu

Lembailen erremeditu,
Eta aurrera Cristoren bide
Zucenayetan seguitu
Ala salvatu ta gloriara
Berac eramango gaitu,
Iria oyec guerentzaco
Imaz-ec ematen ditu.

70. Irurogueita amar verso
Ejemplo batian emen,
Ombertituta Jesusengana
Len baitlen jarri gaitian;
Izan dedilla zure gracia
Iltzen gueran instantian
Zuri alabatzen vici gaitecen
eternidade gucian.





